



DONOSTIA OSPITALEKO HOBETZE-TALDEEN ANALI- SIAK ETA PROPOSAMENAK

pertsonaleko zuzendaritza

esku onenetan



Hobetze-taldeek analisiak eta proposamenak

DONOSTIA OSPITALEA
Begiristain pasealekua, z.g.
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Koordinazioa
Pertsonaleko Zuzendaritza

Diseinua eta maketazioa
Komunikazio Unitatea

**Donostia Ospitaleko Pertsonaleko
Zuzendaritzak egin.
2008**

Hobetze-taldeen analisiak eta proposamenak

AURKIBIDEA

Aurkezpena	3
Parte-hartzaileak / Talde koordinatzailea	4
Segurtasun eta Lan-osasuneko Arloa	8
Lan-baldintzen Arloa	12
Prestakuntza Arloa	14
Lanpostuarekin identifikatze eta Lanbide-garapenaren Arloa	18
Aitorpenaren Arloa	20
Ordainsarien Arloa	22
Parte-hartzearen Arloa	26
Komunikazioaren Arloa	28

Behin pertsonen gogobetetze-inkesten emaitzak jasoz gero, eta profesionalen taldeekin 2005ean egindako esperientziaren ondoren, Pertsonaleko Zuzendaritza honek koordinaturik, zenbait hobetze-talde osatu ziren.

Dokumentu honetan bederatzi taldeetan parte hartu duten profesionalak –kategoria guztietako 101 profesional– egindako lanaren emaitza aurkeztu nahi dizuegu.

Etaparen berrikuntza zenbait talde berri sortzea izan da, hala nola, arlo kirurgikoa, mantentze-lanak eta zerbitzu orokorrak. Bereizketa hau egin zen zenbait taldeetako errealitatetik gertuago zeuden eta zehatzagoak ziren planteamenduak lortzearren.

Berriro ere gure eskerrik beroena beren ideiak eta ekarpenak eginez parte hartu duten guztiei; izan ere, lagungarriak gertatu dira eguneroko jardunean, eta azken finean, Ospitalearen hobekuntzan, eragina duten zenbait alderdiri buruz hausnarketa egiteko orduan.

Josune Retegi Ormazabal
Pertsonaleko zuzendaria

Ana Martínez Alonso
Pertsonaleko zuzendariordea

PARTE-HARTZAILEAK

ABIZENAK ETA IZENA

Adrian Icaceta, Yolanda
Aguado Tovar, Alfredo
Arocena Del Campo, Paco
Azkona Garaño, M^a Jose
Beares Prellezo, Pilar
Bujanda Fdez de Pierola, Luis
Burgos Igareta, Conchi
Calvo Mejias, Yolanda
Castaño Garcia, Francisco
Conejero Ortega, Arantxa
De la Cuesta Arzamendi, Francisco
Dominguez Alonso, José M^a
Dominguez Gutierrez, M^a José
Echeverria Miner, Esperanza
Etxaniz Orbegoza, M^a Jesús
Freixenet Palle, Rosa
Gandarias Arza, José Angel
Garcia Fuentes, Angela
Garcia Galbete, Belén
Garcia Mendia, M^a Eugenia
Gil Vicente, M^a Victoria
Goikoetxea Zubizarreta M^a Jesús
Goldaracena Franco, Idota
Gomez Muñoz, Isabel
Gonzalez Corbeiria, Claudia
Hernandez, José
Iraola Galarraga, Koro
Izaguirre Azkue, Izaskun
Jimenez Agüero, Raúl
Landa Maya, Josefa
Larraz Martinez, Carlos
Lozares Martinez, Iosune
Manso Pajarron, Esther

ARLOA

Zelaria
Mantentze-lanetako Zerbitzua
Informatikaria
Sukaldeko Zerbitzua
Erizaintzako laguntzailea
Fakultatibo espezialista
Emagina
Erizaina
Mantentze-lanetako Zerbitzua
Erizaintzako laguntzailea
Fakultatibo espezialista
Zelaria
Teknikari espezialista
Administrazio-arloa
Fisioterapeuta
Erizaina
Mantentze-lanetako Zerbitzua
Teknikari espezialista
Teknikari espezialista
Erizaintzako laguntzailea
Administrazio-arloa
Administrazio-arloa
Administrazio-arloa
Ikuztegioko Zerbitzua
Garbiketa Zerbitzua
Mantentze-lanetako Zerbitzua
Sukaldeko Zerbitzua
Administrazio-arloa
Fakultatibo espezialista
Fakultatibo espezialista
Mantentze-lanetako Zerbitzua
Teknikari espezialista
Administrazio-arloa

Martin Garcia, Javier
 Martin Rodriguez, Fco. Javier
 Martinez Fernandez, Arantxa
 Martinez Martinez, Magdalena
 Mendizabal Yarza, José A
 Merino Navarro, Charo
 Navarro Fernandez, Esther
 Pache Lopez, José M^a
 Pascual Murciego, Yolanda
 Pazos Gonzalez, Juan Carlos
 Pena Malvido, Beatriz
 Pernas Pena, Arantxa
 Porres Aracama, José Manuel
 Razquin Ugarte, Marian
 Recalde Uriz, Lucia
 Rezabal Peñagarikano, Pilar
 Rico Tubio, Arturo
 Ripero Erviti, M^a Felicidad
 Rodriguez Gomez, Virgilio
 Rodriguez Muga, Paloma
 Rubio Aurquizal, M^a Luisa
 Sese Sarasti, Mertxe
 Tejera Torroja, Eduardo
 Torres Sierra, José Luis
 Yecora Garcia, Manolo
 Zubeldia Caminos, José Javier
 Zubeldia Ugarte, Mikel

Zelaria
 Fakultatibo espezialista
 Erizaina
 Ikuztegiko Zerbitzua
 Zelaria
 Erizaintzako laguntzailea
 Garbiketa Zerbitzua
 Administrazio-arloa
 Erizaina
 Zelaria
 Teknikari espezialista
 Erizaina
 Fakultatibo espezialista
 Erizaintzako laguntzailea
 Erizaintzako laguntzailea
 Teknikari espezialista
 Sukaldeko Zerbitzua
 Erizaina
 Mantentze-lanetako Zerbitzua
 Teknikari espezialista
 Erizaina
 Erizaina
 Fakultatibo espezialista
 Zelaria
 Zelaria
 Fakultatibo espezialista
 Mantentze-lanetako Zerbitzua

TALDE KOORDINATZAILEA

Aguirre Lazkano, Mikel
 Barandiarán Múgica, María Jesús
 Dorronsoro Goikoetxea, Iñaki
 Goikoetxea Ferreiro, Máximo
 Martínez Alonso, Ana

Orbegozo Alberdi, Javier
 Retegi Ormazabal, Josune
 Salvador Blanco, Julián
 Suquía Zabaleta, Elena

esku onenetan

**SEGURTASUN ETA
LAN-OSASUNEKO ARLOA**



SEGURTASUNA ETA LAN-OSASUNA

Profesionalen azken gogobetetze-inkestan, SEGURTASUN ETA LAN-OSASUNEKO faktorea arlotzat hartu da, eta bertan honako alderdi hauekin zerikusia duten ekintzak txertatu dira: baldintza fisikoak eta ingurumenekoak, higie- eta segurtasun-baldintzak, karga- eta lan-banaketa, kontzentrazio- eta jarraitutasun-baldintza egokiak, eskakizun-maila eta esfortzu fisikoa.

Hurrengo bi urtetan garatzeko proposatutako ekintzarik garrantzitsuenen artean honakoak aipatuko ditugu:

Prebentzio eta Laneko arriskuei buruzko plana

2007an Donostia Ospitale osoko laneko arriskuei buruzko plana bukatu ostean, Zuzendaritza-batzordea martxan jarri da berriro, hilerok bilerak eginez, betetze-mailaren jarraipena egitearren. Batzordea arrisku-ebaluazioetan ezarritakoa betetzeaz arduratuko da kasu bakoitzean lehentasuna eta arrisku-maila kontuan hartuz.

Osasun-arazoengatiko Mugikortasun Akordio berria egitea

Akordio berriaren helburua honakoa da: osasun-arazoak direla-eta, beste lanpostuan egokiagoak izan daitezkeen pertsonak aukera izan dezaten modu egokian betetzen duten lanpostu hori behin betiko hartzeko, mugikortasuna eragindako osasun-arrazoiek jarraitzen badute.

Akordio berri honek osasun-arazoak dituzten profesionali laguntzen die modu egokian bete ditzaketen lanpostuei –hauek dituzten ezaugarriengatik– atxikitzen.

Akordio berri hau, behin onartuz gero, Donostia Ospitaleko web-orrian argitaratuko da.

Laneko baldintza fisikoetan egin daitezkeen hobekuntzei buruzko ikerketak egitea

Bi ikerketa egitea erabaki da Ospitaleko zenbait unitatetako baldintza fisikoetan duten eraginagatik lehentasunezkoztat jo direlako. Ikerketak hauexek dira:

- ☐ Garraio mekanikoei buruzko ikerketa: gurpil-aulkiak, oheak, orgak, etab.
- ☐ Elektrizitate estatikoari buruzko ikerketa (bereziki berritutako unitateetan, etab.).

Ikerketa horiek 2008an egingo dira eta erdi mailako arduradunei helaraziko zaizkie zabalkundea egin dezaten.

esku onenetan

LAN-BALDINTZEN ARLOA



LAN-BALDINTZAK

Lan-baldintzen arloak honako alderdiekin zerikusia zuten ekintzak planteatzen zituen: laneko baldintzak eta egutegia, lizentziak eta baimenak, familia eta lana bateratzea, lan-egonkortasuneko baldintzak eta akordioarenak. Bi ekintza nagusi proposatu dira:

Ordutegi-malgutasunari zuzendutako proposamenak laguntzeko protokoloa egitea familia eta lana bateratze aldera

Protokoloak ordutegi-malgutasunari zuzendutako proposamenak laguntzeko neurriak aplikatzeko irizpideak ezarriko ditu familia eta lana bateratzearen.

Egindako protokoloa Zuzendaritza-batzordeak onartu du eta Ospitaleko web-orrian argitaratuko da.

Aldi baterako kontrataziorako protokolo berria egitea

Aldi baterako kontrataziorako protokolo berria egingo da eta unitateen beharrei erantzungo die, antolakuntza- eta asistentzia-kudeaketa irizpidearen arabera kontratazioak ahalbidetuz, beren lanpostuak betetzea planifikatzen duten unitate eta arloetan. Lehenetsuna emango zaie aurrez adostutako helburuekin bat egiten duten unitateei.

Zuzendaritza-batzordeak egindako protokoloa erdi mailako arduradunei helaraziko zaie eta Ospitaleko web-orrian argitaratuko da.

esku onenetan

PRESTAKUNTZA ARLOA



Arlo honetan honako ekintza hauek proposatu dira: Donostia Ospitaleko Prestakuntza-plana eta unitateentzako Harrera-plana egitea.

Donostia Ospitaleko Prestakuntza-plana egiteko batzorde bat eratu da. Batzordearen eginkizunak honakoak izango dira: arlo asistentzialaren lanpostuetako gaitasunak eta trebetasunak aztertzea, eta Prestakuntza-plan bat egitea profesional bakoitzak lanpostu bakoitzean zehaztutakoa gara dezan.

Prestakuntza-planaren helburua eskainitako hezkuntza-ekintzak berritzea da. Zentzu horretan, SAKONTZEN PLANA garatzen ari da Ospitalean, zuzendari gerenteak bultzaturik. SAKONTZEN PLANAREN xedea Donostia Ospitalean prestakuntza-arloa berritu eta indartuko duten prestakuntza-ekintza berritzaileak bateratzea da. Azken seihilekoan garatzen ari diren ekintzen artean hauexek aipatuko ditugu:

Lidergo-proiektua

Ospitaleko buruei zuzendutako proiektua. Proiektuaren lehen faseari hasiera eman zaio pertsonal diplomatu sanitarioarekin, eta guztira Ospitaleko 150 profesionalek hartu dute parte. Lehen fase honetan 360 graduako ebaluazioa egin zitzaion erizaintzako 72 arduraduni. Ebaluazioa bukatu ostean, gaitasun eta trebetasunei buruz lortutako emaitzak arduradun bakoitzarekin aztertu dira, eta egun banakako prestakuntza-plan bat prestatzen ari da kudeaketa eta lidergoko gaitasun eta trebetasun hauek hobetzen lagunduko duena.

Ezagutzaren kudeaketari buruzko ikastaroa

Donostia Ospitaleko profesionalei zuzendutako ikastaroaren helburua da bertara-

tuek ezagupenak eta oinarritzko trebetasunak har ditzaten Donostia Ospitalean eza-
gutzaren kudeaketa bultzatzeko.

Harrera-plana unitateetan

Aipatutako prestakuntza-lerroez gain, prestakuntzari eta lanpostuari egokitzeko oinarritzko harrera-plan bat ezartzeko lan egingo da. Plan horrek zehaztuko du unitateko zein pertsonak, noiz eta nola heziko dituen lanpostuan hasi berri diren langileak, lanpostuarekiko egokitzea hobezina izan dadin bai hasi berri den langilearentzat bai eta unitateko gainontzeko langileentzat ere. Planak ezarritakoaren jarraipena eta ebaluazioa egingo da betetze-maila aztertzearen.

esku onenetan

LANPOSTUAREKIN IDENTIFIDATZE ETA LANBIDE-GARAPENAREN ARLOA



LANPOSTUAREKIN IDENTIFIKATZEA ETA LANBIDE-GARAPENA

Arlo honetan proposaturiko ekintzak batetik, unitateetako arduradunen lanbide-garapenari daude zuzenduta, **Lidergoaren Proiektua** atal honetan txertatuz; bana-ka eskainitako prestakuntzak gure buru eta arduradunen lanbide-garapenean sakontzea dakarren heinean.

Bestetik, gure profesionalen lanpostuetan lanbide-garapenari zuzendutako ekintzak ezarri dira, bere espezifikotasun teknikoagatik, prestakuntza-eskakizunagatik edota Ospitaleko barne- eta kanpo-lanpostuekiko harremanagatik, unitate bakoitzean gai-nontzeko lanpostuekiko lanbide-garapentzat har daitezkeen lanpostuak definituz.

Zenbait kategoriatan goi-mailako beste lanpostuetara aldi baterako igotzeko dagoen aukerari dagokionez, dagoeneko martxan dauden sarbide-sistemetako komunikazioa eta informazioa hobetu behar da profesionalek gaur egun dauden aukeren berri izan dezaten.

esku onenetan

AITORPENAREN ARLOA



Aitorpenaren arloan aintzat hartu dira unitatean ondo egindako lanarekin zerikusia duten ekintzak eta aitorpena erakundean, hiru ekintza nagusi proposatuz:

Erreferenteak diren zerbitzuei eta une jakin batzuetan zenbait zerbitzuri eskerrak emateko protokoloa egitea

Komunikazio Unitateak protokolo bat egingo du eskerrak nork, noiz eta nola emango dituen zehaztuko duena.

Egindako protokoloa Zuzendaritza-batzordeak onartuko du eta Ospitaleko web-orrian argitaratuko da.

Erizaintzako kudeaketa-eredu berria

Ereduberr honek –dokumentua erizaintzako profesional-talde batek egin du– erizaintza modu aktiboagoan eta estrategikoagoan kokatzen du ospitaleko bizitzan.

Dokumentua 2007ko azken hiruhiletik ari zaio erakusten Donostia Ospitaleko erizaintzako pertsonalari.

Profesionalen lege-laguntzari buruzko Komunikazio-plana egitea

Ekintza honen helburua profesionalei bere lan-jarduera burutzeko Osakidetzan dagoen lege-laguntza ezagutaraztea da. Horrek lagunduko die profesionalei laguntza behar dutenean, zer egin behar duten ezagutzen, eta arlo honetan egiten diren ekintzen eraginkortasuna hobetzen.

esku onenetan

ORDAINSARIEN ARLOA



Arlo honetan sartu dira gure profesionalen ordainsarietan eragina duten faktoreak.

Diplomadun sanitarioen lanbide-garapena

Diplomadun sanitarioen lanbide-garapenaren lehen deialdian 736 profesionalak hartu dute parte. Horren emaitza 2007ko urriko nominan islatu da.

Proiektuak ere honakoak jasotzen ditu: bost urte baino gehiago eman dituzten profesionalentzat I. eta II. mailak martxan jartzea, eta III. eta IV. mailak aplikatzea. Deialdi hauekin ia egokitze-fase osoa burutuko da.

Halaber, 2008an zehar lanbide-garapena ospitaleko gainontzeko kategoriei ezartzeari ekingo zaio.

Pertsonal ez-finkoari antzinatasun-osagarria aitortzea

Aitorpen honek pertsonal ez-finkoari Administrazio Publikoan egindako zerbitzu guztien ordainketa eta eguneratzea ekarri du 2007ko uztailera nominatik aurrera. Aitorpen horren arabera pertsonal ez-finkoak ere antzinatasun-osagarria kobratzen du pertsonal finkoari aitortzen zaion irizpide berdinekin. Hau da, Administrazio Publikoan egindako hiru urteko bakoitzeko antzinatasun-osagarria kobratzeko eskubidea izango da.

Konpentsazio-formula berriak aztertzea Kudeaketa klinikoko unitateek betetako helburuengatik

Ikerketa bat egingo da betetako helburuengatik Kudeaketa klinikoko unitateentzako konpentsazio-formula eta irizpideak jasoko dituenak.

Ikerketa honek konpentsazio-formulak aztertu beharko ditu antolatze- eta kudeaketa-esparruan, Ospitalearentzat lortutako hobekuntzez –ekonomikoak, asistentzialak, osasunaren ingurukoak,...– onura ateratzen lagunduko dutenak.

esku onenetan

PARTE-HARTZEAREN ARLOA



Parte-hartzearen arloa hobetzeko aintzat hartutako ekintzen artean hauexek azpimarratu behar dira:

Diziplina anitzeko taldeak asistentzia- eta antolatze-hobekuntzetarako

Unitateetan diziplina anitzeko taldeak osatzea proposatzen da antolatze- eta asistentzia-hobekuntzetarako. Horrelakoak dauden tokietan profesionalen esanetan, hobekuntza nabaria da unitateko funtzionamenduan eta gainontzeko unitateekiko harremanetan.

Profesionalek unitateetako antolatze- eta/edo asistentzia-arazoak konpontzeko diziplina anitzeko taldeetan parte-hartzeko eskakizun hori ere 2005eko ekitaldiko hobetze-taldeetan antzeman zen. Bazegoen edo martxan jarri zen unitateetan emaitza oso positiboa izan da, beti ere taldeak operatiboak eta eraginkorrak badira.

Fase honetan zenbait talde eratzea proposatzen da, dagoeneko horietako batzuk osatuta daude eta proposatutako hobekuntzetan ari dira lanean:

- ☐ Ohe-kudeaketa hobetzeko taldea. Bere helburua ektopiko-kopurua saihestea eta asistentzia-antolamendua hobetzea ospitalean.
- ☐ Alde kirurgikoa koordinatzeko taldea
- ☐ Unitateen eta zerbitzu zentralen arteko hobetze-taldeak (erradiologia, laborategia,...) unitateen arteko koordinazioa hobetze aldera.
- ☐ Erizaintza - Mantentze-lanak lantaldea. Talde honen helburua da Mantentze-lanetako Zerbitzuaren jardura hobeto planifikatzea erantzun eraginkorragoa emate aldera.

esku onenetan

KOMUNIKAZIOAREN ARLOA



Komunikazio Arloak honakoak hartzen ditu bere baitan: lana gauzatzeko informazioa-rekin zerikusia duten gaiak, lanean eragina izan dezaketen erabakiei buruzko informazioa, hobetzeko iradokizunak entzutea eta kontuan izatea, informazio-sistemak erabiltzea, erakundearen ataria erabiltzea eta teknologia berrien aplikazio-maila.

Ekintza hauek proposatu dira:

- e-Osabide proiektua ezartzea. 2008an e-Osabide programa ezarriko da ospitalean pazientearen informazio klinikoa hobetzeko. Antolamendu eta Informazio Sistemen Zuzendariordetzak proiektu horren ezarpena koordinatu eta zuzenduko du. Proiektuak gaur egungo informazio asistentzialaren sistemen aldaketa ekarriko du.
- Irudi erradiologikoa eta digitalizatua. Antolamendu eta Informazio Sistemen Zuzendariordetzak ere irudi erradiologikoa digitalizatzeko Osakidetzaaren proiektu osoaren ezarpena zuzenduko du.
- Informazioa komunikatzeko protokoloak egitea, txandagatik, egoeragatik edo komunikatu behar den gai bereziagatik ohiko kanaletatik eman ezin dena. Protokolo hauen helburua komunikazioa hobetzea da zailtasunak azaltzen diren egoeretan pertsonalak horren berri izan dezan.